

## 9

**-ZIO**

Euskarak latinetik eta latin-hizkuntzetatik harturiko maileguen artean *-tione* atzizkiak axola berezia du, euskal hitzei ere gehi baitakieke, *amorrazio*, *begitazio* eta kidekoak emanez.

Atzizkiak zenbait aldaera ditu euskalkien arabera. Literatura tradizioan nagusiak hauek dira: *-zino* edo *-ziño* bizkaieraz (*-zino* zenbait idazle lapurtar klasikotan ere agertzen da, eta bizkaierazko zenbait testu zaharretan, baita ere *-zinoe*); *-zio* gipuzkeraz, goi- nafarreraz, eta Aezkoa eta Zaraitzuko hizkeretan, eta *-zione* Iparraldeko euskalkietan, Baztanen (baita ere *-zio*, Echeniquek bederen) eta Errokarin. Azken hogei bost urteetan euskara batuaren eraginez horietako bi aldaera dira ia erabat gailendu direnak: *-zio* Hegoaldean eta *-zione* Iparraldean. Beraz, badirudi euskara baturako hautaketa bi aldaera horien artean egitea dela bidezkoena, eta soziolinguistikazko arrazoien kariaz Hegoaldean erabilia dena hobestekoa dela.

Hortaz, Euskaltzaindiak *-zio*, *-zino*, *-ziño*, *-zinoe* edo *-zione* aldaeren artean *-zio* aldaera (hots, *amorrazio*, *begitazio*, *debozio*, *instalazio*, *integrazio*, *zibilizazio*, *administrazio*, *segizio*, *barkazio*, *bezalako* formak) hobesten du euskara baturako.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)